

## IZARO

Positibo.

Haurdun zeuden.

Arresi kaleko farmaziatik atera zirenean Itziri losako baldosak zikinegiak iruditu zitzaizkion. Behegainean jesarri nahi izan zuen, zorabioaren bertigoari eusteko. Farmaziatik atera zirenean, Gaizkari iruditu zitzaion norbaitek zer bait esan behar zuela egoera hartan, eta ez zitzaion beste ezer hobetik bururatu ezkondu egin beharko zutela esatea baino.

«Ba ezkondu egin beharko dugu, ezta?».

Izarok lotsarik gabe eta umore handiz kontaktzen ditu bere gurasoen gaztetako gorabeherak klasekideen aurrean. Unibertsitateko kanpusean eguzkiak atsegin berotzen du, urri hasierako eguerdi epel honetan. Gizarte eta Komunikazio fakultatearen kanpoko aldean, porlanez inguratuta, zelai karra-tu bat, eta erdian haritz argal bat. Zuhaitzaren alboan jesarri dira Iزارo eta klasekideak, belartzan. Erle bat dabil hegaka inguruan. Badira udazkenean loratzen diren haziak, antza.

Mobilean daukan argazkia erakutsi die Izarok ikaskideei. «Amumak etxeko gortinak hartu eta ezkontzarako soinekoa josi zion amari... gortinekin! Txo, zelako itxura argazkietan». Denek nahi dute ikusi. Hatzak pantaila gainean labandu eta irudia handituta ere ez da igartzen gortinekin josia dagoenik ezkontza-soinekoa. Zirkuluan eserita belartzatza gainean, Aitorrek hartu du Izaroren mobila eta Itxasori pasatu dio gero. Itxasok bekainak goratu ditu harriduraz, irribarre bat atera zaio, eta ezpain ertzak okertu ditu azkenik, halako aitortza keinu batez: *ez da jostun makala zure amuma gero! Begira*, esan eta aurrean dituzten hiru ikaskideei luzatu die mobila Itxasok. Izarok ez du ikasi nola deitzen diren oraindik; asko dira klasean. Kaskamotzak hartu du smartphona eta alboan jesarrita dituen beste biek hurbildu dute burua pantailara, eskuekin txapelarena eginenez, eguzkiari gerizpe egin eta pantaila hobeto ikusteko.

Denak adi dituela jabetuta, Amuma Maitez eta sasoi hartan bandido hutsak ziren bere gurasoez harro sentitu da Izaro. Pozik dirudite ezkonberriek argazkian. Baseliza bateko eskailerak jaisten ari dira. Ezkerrean doa aita eta bere besotik helduta ama, Gaizka Zulueta Minondo eta Miren Itziar Beitia Caminos. Barreka baina burua makurtuta daukate biek, zerbaitetatik babestu guran, begiak itxita. Datorkiena zer den ondo dakiten bi lagunak aurpegia da. Badakite saihestezina dela zaparrada. Ezkonberriei arroza botatzen dieten unea. Klik.

Bota du euria ordutik.

Zilarrezko ezteiak beteko dira laster.

Hogeita hiru urte ditu alabak gaur, ile labur kizkurra eta desordenatua, azala erdi-beltzarana eta lehorra du. Ezkata txikiak irteten zaizkio masailetan Izarori. Piercinga janzten du azpiko ezpainaren erdian eta gutxitan erabiliko du bularretakorik. «Sujetadore inposatzaile!» da Izaroren erantzuna, baita inork galdetzen ez duenetan ere, badaezpada. Autobusez egiten du Herritik unibertsitaterainoko joan-etorria, egunero, eta taberna batean egiten du lan arratsaldez, ikasketak ordaindu ahal izateko eta, ahal den neurrian, gurasoen etxera diru ekarpen apur bat gehitzeko. Orain arteko titulazioarekin, zaharrak zaintzeko eta ipurdiak garbitzeko lana besterik ez diote eskaini. Laguntzaile soziosanitario gradua lehenago eta gizarteratze graduondoa gero, praktikak eta ordezkapen apurrak egin ditu erresidentzietan, gehiago ez. Gizartea eraldatu egin behar dela uste du, ordea, Izarok. Asistentzialismoa deitoratzen du eta bere egiten du Glaukoma reggae taldearen kanta bat: «Sistema ezin da konpondu, sistema da aberial!».

Horregatik matrikulatu da aurtten Soziologian, ikuspegi kritikoren baten eta hausnarketa sakonagoen bila, aseko duen zerbait topatuko duelakoan. Lan merkatuan baino, gehiago bere testuinguru hurbilean jartzen du arreta, egunerokoan, bizitzarako armak hartzearren, etxetik hasita. Bere ikaskide gehienek baino bost urte gehiago dauzka eta diferentzia igartzen du tarteka. Baina, Marx edo Durkheim ekartzen duenean debatera norbaitek, barruan duen jakin-mina pizten zaio.

Amaitu dituzte klaseak gaurkoz.

Ordubete falta da oraindik etxerako autobusa hartzeko.

Fakultate aldameneko kafetegian badaude libre hainbat mahai, baina gusturago daude belarretan jesarrita, freskoago, eta non eseri behar duten markatuta ez dagoen leku batean axolagabe jesartzeak libreago eta buruaskiago egiten dituelakoan. Enpoderatuago-edo. Desobedientzia moduko bat, habito 'onei'.

–Mikel Laboa deitzea plaza kutre hori... Hori sakrilegioa da.

–Zer ba?

–Zer pintatzen dute hor pin-ponera eta xakera jolasteko mahaiek? Izatekotan, kinitora jolasteko beharko lukete, urteko ardo on batekin!

Patxadatsu jesarri dira beste hainbat ikasle-talde ere zelaiko haritzaren inguruan, denak manga laburrean edo sorbaldetaraino igota. Zelai erdiko haritz meheak hostoak gorritzen hasita dauzka, osterantzean ez dago udazkena iritsi izanaren beste seinale agerikorik; errepide ertzetako panpa-belarrek berdin inbaditzen dituzte bazterrak luma zuriz. Jertsea kendu eta buru gainean ipini du Izarok, gerizpe egiteko. Besapeko ileak bistan geratu zaizkio jertsea jasotzean, haizetara kilima freskoa nabaritu du-eta, baina berdin dio. Bere aitaren gaztetako orrazkeraz hasi da hizketan, modernoa zela, baina sasoiko modernoa: melena luzea sorbaldetaraino eta flekilloa puntan gorantz.

«Nire aitak pistolero baten antza zuen! Kar kar kar». Gozatzen ari da Izaro, gurasoak benetako punki batzuk zirela kontatuta aurten ezagutu dituen karrerako lagunei, eta ama oraindino gehiago aldatu dela esaten die, argazkietan ia ezagutu ere ez duela egiten. Klasekideek ez dakitenez

nolako itxura duen gaur egun Izaroren amak, ezkontzako argazkia daukate erreferentzia bakar: «Hor oso guapa dago, baina oraindino guapago irteten zuen beste argazki batzuetan, andoba hutsa!». Beltza zuen ilea, leuna eta luzea. Martens botak janzten zituen, ilea bezain beltzak eta luzeak, eta ezpainak gorri ilunez margotzen zituen. «Makarra bat! Eta gero ikusten dituzu biak hor, ezkontzako argazkian eta ene bada... zelako sustoa! Kar kar kar!».

Horrela hitz egiten du Izarok gurasoei buruz, eta barre egiten du gustura denen aurrean, gurasoak gazte zireneko balentriatxoei buruz heldu zaizkion kontakizunen bertsio pertsonalki errebisatua kontu kontari azaltzean. Besteek ere barre egiten dute, telefonoaren pantailari begira, Izarok hala egiten duenez gero.

Pozik dirudi bikoteak ezkontza eguneko argazkian. Distira itsugarri bat isladatzen du flashak Gaizkaren alkandora zurian, eta argazki zaharra brillodun paperean errebela-tu izanak ez du laguntzen: Izarok mobilarekin kapturatu duenean, paper fotografikoaren berezko brilloa gehitu zaio argazkiko flasharen distirari. Gaitz erdi, hala ere, alabak ez dakien arren, hau baita egun hartatik gordetzen duten argazki bakarra. Ezkontzako negatiboen kopia gehienak erreta atera ziren alkandoraren distira gehiegizkoaren ondorioz. Amaren ileko permanenteaz egin du komentarioa klasekide batek, Izarok ez du ikasi haren izenik kurtsoa hasi denetik, baina tipa barrezka hasi zaio Izaroren amak argazkian daukan moñoari, Pisa Dorrea baino altuago daramala-eta, ile-mordoilo horren barruan kabitut behar zitzaioela denetarik, exajerazioen zerrenda oso bat, eta Izarori ez zaio

batere gustatu burla tonuko jarduna. Nongo konfiantzak dira horiek. Gorritu egin zaizkio masailak eta dardakada-txo bat egin dio ezpaineke piercingak, haserre, baina ez dio kontra egin. «Bai, egun horretarako oso disfrazatuta eta oso diferente jantzi ziren».

Hizketagaiaren fokua lekualdatu du, amaren moñotik aitararen traje beltzaren praka lisatuetara. Izan ere, Izarorentzat argazkiko gauzarik harrigarriena, beste adorno estrafalario guztien gainetik, zera da: aita zutik ikustea. Eta hala kontatu die, gaitz egiten zaiola aita oinez irudikatzea, ermitako eskailleretan behera, bere kabuz, hanka bien gainean. Gurgildun aulkian ezagutu baitu beti, umetarik.

Erle bat pasatu da apunteen gainetik.  
Ziztada bat entzun da mututasunean.

Mobila itzuli diote Izarori, eta inor ezer esatera ausartu ez denez, norbaitek isilunea hautsi behar duela eta berari dagokiola iruditu zaio. «Ai ama, egia!», akordatu da bat-batean: «Txo, behinola, txo. Kar kar kar! Daude aita eta amuma kurratzen dudana taberna kanpoan eta lagun bat hurreratzen zaie, andra bat, uste dut alboko dendakoaren koinata-edo, berdin dio, total, hasten dira berbetan beste barik, eguraldiaz-eta, eta halako batean amumak buelta erdi ematen duenean kafe tazak ekartzeko barrura, galde-tzen dio lagunak ahopeka aitari, Eta zu zer? Zelan daroazu? Dena serio bera andra. Eta nire aitak, Ba ondo. Eta andrak, Gogorra da aulkiarena, ezta?, nire semea ere egon zen bi hilabetez aulkian, eta oso gogorra da, bai. Eta klaro, nire aita jada flipatzen apur bat, esaten dio, Tira, nik badaramatzat

daborduko 23-ur-te-man-do. Eta txo, doa andra hori eta esaten dio, Bai, baina etxean bazabiltza oinez, ezta?!».

Kampus osoan entzun dira Izaroren barreen oihartzunak, hasi Komunikazio fakultatetik eta Arte Ederretaraino. Ezagutzen ez duenak hartuko du espanturik zalaparta horrekin, baina ikasgelakoak ez dira asaldatu. Lehendabiziko ostegun unibertsitarioan ezagutu zuten haren algara zaratatsua. Poteorako irten eta gaupasa egin zuten, Uriko parte zaharrean. Txupito festa izan zen hura, lotsak galtzeko presa zutenek eta kezkak popatik bidali gura zituztenek, denek, topa eta topa. Aitor eta Itxaso han liatu ziren elkarrekin, adibidez. Goizean goizeko lehen autobusean bueltatu zen Izaro Uritik, ibilgailuaren balantzadekin lo seko. Egun-argiak min eman zion begietan Herriko azken geltokira iritsi zenean.

Itsastxorien karranka ozenak barre algara salataria dirudi gaupasa luze baten ostean etxera bidean, inor ibiltzeko goizegi den kale desertuen oihartzunean. Bazterra auzotik igo zuen aldapa gurasoenera, portu atzean dauden eskailera okerretan gora, bidean inor gurutzatuko ez zuelakoan. Bi gazte ikusi zituen, ordea. Hasieran pentsatu zuen turista goiztiarrak zirela, argazkiak ateratzen ari baitziren, baina ez; egunsentiaren izpiak saihestu eta loguraren fokatu-ezina gainditu zuenean, nerabe bi identifikatu zituen. Herriko bi neska ziren, gaupasaren batetik bueltan eurak ere, elkarri argazkiak ateratzen eta pinpirinarena egiten kamera aurrean, muxuka eta barreka.

Aldatu da eskailera oker hauetako fauna azken hiru hamar-kadetetan. Oraingo gazteek selfiak ateratzen dizkiote elkarri. Lehengoek, koilara bat.

Ezkontza egunaren bezperan lapurretan aritu ziren Izaroren gurasoak. Sos gutxi batzuk lortzeko, behar zutena erosteko. Deitu zaldia. Deitu behorra. Deitu beharra. Materiala eskuratuta, portu atzera joan ziren, amildegi azpiko haitzetara. Xiringak botata eta karramarroak ezkutuan, olatuek ekarritako zabor hondakinen artean. Pintada handi bat, gorriz, *Camello txibato*.

Eta atzera, mareak mareaz beste.

Izaro irlak hiruki luzanga baten itxura bat dauka portutik. Baina beste era batera ikusten dira gauzak atzetik edo albotik begiratuta. Ez da gaitza irlaren beste alderaino joatea, itsasoz, haitzaren forma ezkutuak ikustera. Hara eroango zaituen ontzi bat baino ez duzu behar. Badira bainutxo bat hartzera joaten direnak, arratsalde-pasa, aisialdirako enbarkazioetan. Baporean doazen batzuk goizean goiz irteten dira arrain bila; zortea badute, eguerdirako etxeratuko dira; baina badaude iluntzera arte han geratzen direnak, egonean, arrainak karnadari kausk noiz egingo dion begira. Marealdi handiagoetara doaz beste marinel batzuk, eta igual hiru edo lau hilabete barru etorriko dira bueltan. Inoiz ez da jakiten zelako gorabehera ekar dezakeen marealdi batek. Sekula itzuli ez direnak ere badira, denborale edo galarren zantarren batek mundutik inora eramanda. Eta batek baino gehiagok abandonatu du bere burua, itsaslamien altzora.

Trabeska ezkutatzen dira, itzaletan.

Karramarro bila ibiltzen zen Izaro txikitan, portu atzeko haitzetan. Amuma Maitegaz joaten zen hara, harrizko hondartza beltzera. Eguzkitarako krema du gogoan Izarok,



litroka ematen ziola amumak beso-sorbalda-aurpegian, eta haren usain dultzeak eragiten zion enpagua. Amumak azalerako babesa eman bitartean itsaskien errezetak kontatzen zizkion: «Karramarroak egosten dira apurka eta ur hotzetan. Musilak jaten dira hainbat eratarara. Eta txirlak, gordinik ere bai». Izaro umeari ez zitzaion gustatzen txirlak eta karramarroak jatearen irudia, baina eguzkitarako krema jasotzeagatik egiten zituen kexa eta mainak ahazten zituenek, amuma kontentu eta aldiro kontatu. Kontakizun desatsegin batek beste bat estaltzen baitu.

Portu atzeko xiringak batzen zituzten andrek, haurrengandik ezkutatzeko. Kresalaren ugerra itsatsita erretratueta, eta hormak berdin, berriro.

Inork ez zekien titular hark ekarriko zuenik gero Izarok bere gurasoen gaztaroa ahotan hartzea. Ikasgelatik irten direnean izan da, betaurrekoak sudurrean gora igo ditu Aitorrek, bere iphone berriaren pantailakoa irakurtzeko: *En EEUU hay 2,7 millones de adictos a opiáceos farmacéuticos y caballo, y se registran a diario unas 140 muertes por sobredosis.*—Hori da opiazeo legal asko errezetatu dituztelako azken urteetan medikuek.

—Normala engantxatzea, Farmaziek gominolak legez saltzen dituzte han pastillak.

—Ya te digo, es que dira oso kontsumistak los yankis.

—Yankis edo yonkis?

Barre egin dute eraikinetik zelairantz irten direnean. Barre egin du Izarok ere, inertziaz, lurrera begira; zertarako kontra egin. Agurtu egin dituzte aparkalekurantz joan diren